

**Izena :**

CAPRICHOS PAGOYA YATES EXCLUSIVOS SL

Helbidea:

PLAZA ARANSOTEGUI 2

Herria :

LOIU

Telefonoa :

659790851

E – mailivan.olle@caprichospagoa.com**Web Orrialdea :**www.caprichospagoa.com**Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.**

Enpresa ekimen honen helburua yatchingaren urrezko garaietako produktu fanatikoak berpiztea da, jakina, azken belaunaldiko teknikak eta materialak erabiliz: teknologia aeronautikoa aplikatuz okupatzaileen babeserako mugarik gabeko segurtasuna, egunera arte ezagutzen izan dena, goitik behera berrituz.

Kirol ontzi, ontzigile, broker nautiko eta banatzaileei buruzko azterlan sakona egin ostean ikusi da esparru askea egon dagoela luxuzko josteta-ontzien merkatuan: Galdu egin da zurezko ontzigintza tradizionala, oso ederrak, erabilera askotakoak eta iraunkorrak izateagatik armadoreek egunetik egunera gehiago bilatzen dituztenak. Gaur egun itxura klasikoko luxuzko ontzi bat eskuratzeko bide bakarra, hau da, zurez eraikita dagoena, enkantea da. Enkanteetan prezioak ikaragarri garestiak izaten dira.

Capricho 41 ontzia linea klasikoak dituen ontzi garaikidea da, Caprichos Pagoa ontzigintzako diseinatzaileak egiten duena. Ontziaren diseinatzailea Marcelo Pena ontzien arkitekto kalalana da. 12,50 m-ko eslora du (LOA 12 m.) eta estilodun nabigazioaz gozatzeko funtsezko baldintzak ditu, hau da, era erraz, atsegin eta seguruan.

Capricho 41 "runabout" delakoa artisautzako teknikak erabiliz eraikitzen da Sondikan, horretarako Wengue, Doussie eta Teka Birmaniarraren zuren hautespena eginda, gehi hutsezko epoxy erretsina teknikak erabiliz. Osagai guztiak eta taldea lehen mailakoak dira, sistema ordezkoeekin eta, batez ere, nabigazioaren "belle epoqueko" arima lehengoratzeko asmo erkidearekin.

Merkatuaren deskripzioa.

Ustezko bezeroak:

a) Broker nautikoa: Jostetarako ontziak alokatzen edo erosten dituen pertsona edo izakia. Bere bezeroak ontzia egun bakarrerako eta helburu berezi baterako alokatu nahi du: Egun bat itsasoan lagun edo familiarekin; ontzia argazkien saio baterako eskatzen duen publizitate agentzia; negozio bilerak...

b) Kirol nabigazioaren zaleak: Berariazko produktua nahi duen armadorea litzateke, zuntzez egiten diren produktuak ezagutzen dituen baina zerbait hobea nahi duena.

c) Mega yateen jabeak: Mega yateek kalatu handiegia dute kirol portu gehienetarako edo handiegia dira amarreetan sartzeko eta, ondorioz, tamaina txikiagoko ontzia nahi izaten dute portuetara iristeko.

Lehiakideak:

Gaur egun mota honetako ontziak fabrikatzen dituen enpresa bakarra Riva marka italiarra da. Yateak egiten ditu, kaskuak epoxyzkoak izaten dira eta tosta eta gainerako akaberak zurezkoak. Riva enpresaren ereduak, hau da, Pagoa 41 honekin erkatzeko modukoak, 700.000 €-ko prezioa du merkatuan eta Pagoa 41 entzat zenbatetsi den saltzeko prezioa 550.000 €-koa da.

Jostetako yateak egiten dituzten munduko gainerako fabrikatzaile guztiek euren ontziak polimeroak erabiliz fabrikatzen dituzte.

Sortzeko urtea.	Oraingo langileria.	Facturazioa.
2006	4 pertsona.	580.000€